




II. Plan estrategikoa 2025-2028

Gizaide Fundazioaren I. Plan Estrategikoa (2021-2024) betetzeko epea amaituta, osasun mentaleko arazoak direla-eta laguntza behar duten pertsonekin konprometitzen jarraitzeko motibazio berarekin jarraitzen dugu.

I. Planaren balorazio orokorra egiteko, boluntarioek, talde profesionalak eta patronatuak parte hartu zuten galdetegi bat erantzunez eta aurrez aurreko bilera baten bidez; bilera horretan betetze-maila handia izan zela egiaztatu zen. Hala ere, sentsibilizazio-lanarekin jarraitzearen garrantzia azpimarratu zen, bai eta banakako arretaren jarraikortasuna ziurtatzearen garrantzia ere, gizarte aldakor honek eskatzen duenarekin bat datorren jarrera proaktibo eta malgu batetik.. II. Plan estrategikoa planteamendu eta asmo horretan dago errotuta.



Aurkezpena

Kalitatea eta arreta pertsonalizatua

Pertsona bakoitza mundu bat dela dioen esamoldeak agintzen du gure jarduera, arretaren kalitatearekin batera. Azken urteotako esperientziak erakutsi digu, halaber, artatzen ditugun profilak aldatzen ari direla, eta horrek bultzatzen gaitu estrategia eta prozedura berrie-kin ere esku hartzera, gure jardunaren eta dedikazioaren oinarria izan behar duen kalitatezko arreta pertsonalizatua ematen jarraitu ahal izateko.

Antolaketa gardena

Zuzeneko esku-hartzeaz gain, barne-kudeaketa hobe eta antolaketa gardena bultzatzen segi nahi dugu, jakitun baikara betebeharrak etikoa izateaz gain, Fundazioa osatzen duten eragileen ongizate, konpromiso eta kidetza sentipen handiagoa sustatzen duela.



Gure misioa

Gizaide Fundazioak, bere baliabideen erabilera arrazionalaren bidez, osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonek eta haien ingurune sozio-familiarraren bizi-kalitatea hobetzen laguntzen duten neurri eta jarduera guztiak sustatu, bultzatu eta hartu nahi ditu. Gizaide Fundazioak, halaber, osasun mentalari buruzko hainbat gairen inguruan gizartearen eraldatzeko beharrean azpimarra jarri eta horretarako sentsibilizazio lanak egiten ditu.



Gure ikuspegia


Gizaide Fundazioak bere proiektuetan parte hartzen duten pertsona guztien eskubideak eta arreta bermatu nahi ditu, autonomia, konfidentzialtasuna eta ekitatea oinarri hartuta. Pertsona ardatz duen esku-hartze eredu bat ezartzen du, bere prozesuan inplikaturako beste eragile batzuekin lankidetzaren eta koordinazioaren, baita hartzaileen parte-hartzearekin ere. Osasun mentalaren arloan sortzen diren eskaera berriei erantzuteko ezagutza, modu berritzaile eta etengabeko ikerketari etengabe egokitu behar gaitzaizkiela uste dugu.



Gizaide Fundazioaren balioek pertsonekiko, komunitatearekiko eta sektorearekiko misioa, ikuspegia eta konpromisoa islatzen dute, hauek erabiltzaileekin, gizartean eta barne-kudeaketarekiko jardueratako arlo estrategiko guztietan txertatuz. Balio horiek Fundazioaren erabakiak eta ekintzak gidatzen dituzte, eta koherentzia eta sendotasuna bermatzen dute bere eginkizuna betetzean.

1. Duintasuna, errespetua eta enpatia

- Pertsona bakoitzaren berezitasuna eta gaitasuna aitortzen eta errespetatzen dugu.
- Gizaiden funtsezkoa da erabiltzaileekiko, haien familiekiko eta prozesuan esku hartzen duten beste baliabide eta eragile batzuekiko errespetuzko tratu zintzo eta hurbila bermatzea.
- Pertsona entzuna eta ulertua sentitzen den ingurune bat bultzatzen saiatzen gara.



Gure balioak

2. Inklusioa

- Aukera-berdintasuna eta diskriminaziorik eza sustatzen ditugu.
- Osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonen gizarteratzea ahalbideratzen dugu.
- Kidetza sentipena sortaraz ditzaketen harreman sozial eta topaguneak sortzen edo mantentzen ditugu.

3. Konpromisoa

- Pertsonaren eta bere ingurunearen ongizatea ahalik eta maila handiena izan dadin erabat konprometitzen gara.
- Helburuak lortzeko modu garden eta arduratsuan bete beharreko funtzioekin engaiatzen gara.

4. Elkartasuna eta sareko lana

- Osasun mentaleko arazo bat duten pertsonen bizitzako hainbat esparrutan izan ditzaketen oztopo eta zailtasunak gainditzeko modu gisa elkarrekiko laguntza eta lankidetzan sinesten dugu.
- Ongizate kolektiboa erraztuko duten sinergiak sortzeko joera dugu.

5. Berrikuntza

- Ahal dugun neurrian, zerbitzuen kalitatea hobetzeko metodologia eta tresna berriak txertatzen saiatzen gara.

- Osasun mentalaren eremuan, aldaketetara egokitu eta sormenezko irtenbideak sustatzea ezinbestekoa dela uste dugu.

6. Gardentasuna eta iraunkortasuna

- Lan-ardatz bat erabiltzaileekiko, haien familiekiko eta prozesuan esku hartzen duten beste baliabide eta eragile batzuekiko komunikazio argia eta irekia da.
- Baliabideen kudeaketak etikoa eta iraunkorra izan behar duenaren sinesmenetik abiatzen dugu gure jardura.

7. Prebentzioa eta sentsibilizazioa

- Osasun mentala sustatzeko lanak egiten ditugu, eskubide unibertsal gisa eta baita nork bere burua zaintzeko duen erantzukizun gisa, artatzen ditugun pertsonen autonomia areagotzeko.
- Konpromiso argia dugu nahasmenduen prebentzioarekin eta osasun mentalari lotutako estigma murritzarekin.



Ardatzak, helburuak eta ekintzak



1. ardatza Erabiltzaileak

Estrategia
Osotasunezko ikuspegi batetik, pertsona bakoitzarengan ardazturiko arreta bermatzea, buru nahaste larria duten pertsonen babes eremua eta ongizatea indartu asmoz, horretarako famili eta bestelako sare sozialarekin koordinazioa indartuko direlarik.

Helburuak	Ekintzak
1. Autonomia sustatzea eta bazterkeria eta marjinazioa saihestea.	1.1. Parte-hartzaileen iritzia errespetatzea, bera edo hirugarren bat arriskuan jarri gabe. 1.2. Entzuteko eta hitz egiteko denborak adostea.
2. Laguntzen dugun pertsonaren premiei eta helburuei erantzunez egokitutako arreta indibidualizatua eskaintzea.	2.1. Etengabe berrikusiak diren hartzaile bakoitzaren arreta plan pertsonalizatuak egiten jarraitzea.
3. Laneko estrategiak eta esku-hartzeak bateratzeko familien eta ingurunearen partaidetza indartzea.	3.1. Gaixotasunari buruzko eta esku hartzeko moduei buruzko ezagutza sustatzeko tailer eta familia topaketetan modu aktiboan parte hartzea.
4. Gizarteratzea sustatzea.	4.1. Laguntza suposa dezaketen sare sozialak sortzeko eta indartzeko jarduerak antolatzea eta haietan parte hartzea: kultur, kirol, aisialdi jarduerak, leku berrietara bisitak egitea, etab.



2. ardatza

Eragileak

Estrategia
Fundazioko pertsonen parte-hartze aktiboa sustatzea eta gizartearekiko lotura zabaltzea, komunitate inklusibo eta sentibilizatua sortzeko.

Helburuak	Ekintzak
1. Boluntariotza Plana egitea sustatzea, fundazioaren garapenerako oinarri gisa.	1.1. Boluntariotzaren plana sortzea. 1.2. Osasun mentaleko eta laguntzako gai espezifikoetarako boluntarioentzako formakuntza programa bat garatzea.
2. Hezkuntza eta bestekoa erakundeekin, eta, oro har, komunitatearekin harremanak sortu eta finkatzea.	2.1. Unibertsitate eta bestelako ikastetxe batzuekin lankidetzan jarraitzea, praktiketarako, ikerketetarako eta jardueretarako hitzarmenak egiteko. 2.2. Publiko zabalarentzat ekitaldiak antolatzea, hala nola ate irekiak edo hitzaldi publikoak fundaziotik kanpo.
3. Fundazioaren barne proiektuen arteko koordinazio eta komunikazio tresnak ezartzea.	3.1. Lan objektibo eta koordinatua bermatzeko psikologo taldearen arteko koordinazio bilerak mantentzea.
4. Kontratatutako langileak zaindu eta motibatzea.	4.1. Gizarteak planteatzen dituen erronka berriei egokitutako esku-hartzeak egin ahal izateko langileentzako barne prestakuntza antolatzea. 4.2. Urteko formakuntza plana egitea. 4.3. Kasuen ikuskaritza sustatzea.





3. ardatza Gizartea

Estrategia
Fundazioa Gipuzkoa mailan prebentzio eta arretan erreferente bihurtzea osasun mentalari buruzko ikusgarritasuna eta sentsibilizazio soziala areagotuz.

Helburuak	Ekintzak
1. Hezkuntza komunitateari eta, oro har, gizarteari zuzendutako sentsibilizazio eta prebentzio programak garatzea.	1.1. Ikastetxeetan prestakuntza programa bat egitea, osasun mentalaren inguruko gaiak landu eta sustatzeko.
2. Digitalki eta sare sozialen bidez fundazioaren presentzia eta komunikazioa sustatzea.	2.1. Osasun mentalari buruzko edukiak dituen komunikazio estrategia bat sare sozialetan diseinatzea.
3. Osasun mentalari buruzko informazioaren hedapena erraztea, jarduera publiko eta dibulgetzaileen bidez.	3.1. Urtero jendarte zabalera zuzenduriko ekitaldi bat antolatzea, hala nola hitzaldiak eta jardunaldiak. 3.2. Osasun mental eta boluntariotzarekin harremana duten kanpaina eta ekitaldietan parte hartzea.
4. Eskubideen urraketa salaketa publikoaren bidez azaleratzea eta administrazioari beren erantzukizunak betetzeko eskatu.	4.1. Beharrezkoa ikusten denean, salaketa artikulua argitaratzea.



4. ardatza Erakundea

Estrategia
Fundazioaren gaitasun operatiboa indartzea eta osatzea, esku-hartze zuzena zeharkako planekin aberastuz, erakundearen barruan eta beste erakunde batzuekin lankidetzan.

Helburuak	Ekintzak
1. Hirugarren sektoreko beste erakunde batzuekin baita administrazio publikoarekin ere sinergiak sendotzea, baliabideak eta esperientziak partekatze.	1.1. Hirugarren sektoreko sare eta foroetan parte hartzea, aliantza estrategikoak ezartzeko.
2. Fundazioaren kudeaketan eta eragiketetan. hizkuntza eta berdintasun planak zein datuen babeseko zereginak zeharka txertatzea	2.1. II. Berdintasun Plana eta II. Hizkuntza plana onartzea, datuen babesaren eremuan sakontzea eta sexu-jazarpenaren eta jazarpen sexistaren protokoloa aintzakotzat hartzen jarraitzea. 2.2. Fundazioan garatzen ari diren plan bakoitzaren jarraipen batzordeekin jarraitzea.
3. Barne-komunikazioko kanalak optimizatzea, proiektuen arteko eraginkortasuna eta koordinazioa bermatzeko.	3.1. Erregistroen eta datu baseen sistema estandarizatuak ezartzea, barne-koordinazioa bermatzeko.
4. Baliabide materialak eta higiezinak behar bezala mantentzea.	4.1. Instalazioetan hobekuntzak planteatu eta egitea aurrekontuaren arabera urtero ebaluatuz.
5. Gardentasunez eta gobernu onarekin lan egitea.	5.1. Langile eta boluntario guztiekin urtean gutxienez behin bilera bat egitea, egindako ekintzak partekatze, esparru ekonomikoaren berri emateko eta iradokizunak planteatzeko. 5.2. Diru-laguntzei dagokienez, justifikazio egokia ziurtatzea.



Jarraipen eta ebaluazio adierazleak

- 1. Arreta pertsonalizatua:** banakako planen aldizkako ebaluazioa eta hartzaileen gogobetetzea.
- 2. Sare sozialak indartzea:** Taldeko jardueren eta parte-hartzaileen kopurua handitzea.
- 3. Komunitatean duen eragina:** antolatutako ekitaldien kopurua eta bertaratzea.
- 4. Presentzia digitala:** metrikak sare sozialetan (jarraitzaileak, interakzioa, irismena).
- 5. Zeharkako planak betetzea:** memorien bidez eta barne-auditoriak eginez argitaratutako urteko txostenak. Bestalde, hainbat eragileren (patronatua, administrazioa, etab.) eskariaren arabera behar diren txosten eta azalpen guztiak egitea.

Adierazleak jarraipen dokumentuan finkatuta daude. Urtean behin, gutxienez, jarraipena egingo da.